

mendia ▸ IBILBIDEAK



Mendizale talde bat Antzaramendira igotzen; atzean, laino artean, Irisarri herria. ALLANDE SOKARROS

Antzaramenditik Arradoira

Zeharkaldi luze baina erraz honek Irisarri eta Ortzaizetik Izpuraraino eramango gaitu ibilbide ezezagunetatik


ALLANDE SOKARROS

Abiapuntua zehatz aurkitzeko zein ibilbide hau hanka sartzerik gabe egiteko, mapa baten apurtxo bat irakurtzen jakitea komeni da. Zeharkaldi hau guztia IGN Top 25 1346 OT kartaren 4 - A B C D zatian ikus daiteke. Oinez ibiltzen hasteko gunea Baxenabarreko Irisarri eta Ortzaize herrien arteko errepide bazterrean izango dugu, zehazki Florenzaren Borda baserrirako bide sarreraren pare-parean. Hortxe bertan, Ortzaizerako norabidean 50 bat metro beherago badago latsunarrria errausteko baliatzen zen karobi zahar eder bat, tamalez, baina, suntsitzen ari dena.

Mapan 188 metroan emana den leku horretan, erabat hegoalderat eta apur bat gorantz eginda abiatzen den arbelbide polit baten hasiko gara ibiltzen. Ordu laurdentxo baten buruan, bide sarde batekin egingo dugu topo, eta ezker aldera gorantz joko dugu, nahiz eta eskuin eta behera harturik ere berriro ibilbide honetara aterako ginatekeen Arrabiteko lepoan. Bide

Erreferentziak

- 00:00 Irisarri eta Ortzaize arteko bidea (188)
- 00:45 Arrabiteko lepoa
- 01:45 Antzaramendi gaina
- 03:00 Ihizgorriko bizkarraren abiapuntua (379)
- 04:30 Arradoirako bidea
- 05:15 Arradoi gaina
- 06:30 Izpura herria



Desnibela 600 m
Zailtasuna ***
Luzera 18 km
Denbora 6 ordu 30 min



sardetik berehalaxe, Uhaldeko Borda izeneko eraikin zaharberri-tu baten eta mahasti txiki batean artean pasatzen da arbelbide hau bera. Poliki-poliki gorantz eginda, Larramendiko bizkarraren haria Arrabiteko lepoan (335 m) topatu dugu. Hortik aurrera ikuspegi zabala eta zoragarria gozatuko

dugu, zeren une horretatik bertatik, hurbilago edo urrunago, eza-gutuko baititugu hainbat gailur, hala nola Baigura —ipar-mendebaldean Larla— mendebaldean, Jara, Munhoa eta Oilarandoi —hego-mendebaldean, Iparlako harresi luzea eta Hautza— mendebaldean eta hegoaldean, Urtsua

eta Artzamendi —mendebaldean... eta beste hainbat eta hainbat. Goxo-goxo gora eginda beti, Larramendira (395 m) lehendabizi eta Antzaramendira (446 m) eramango gaituzte gure urratsek, lautada zabal honetako bidelagun izango ditugularik —zoritzarrez baina— uso ehizarako postuak.

Larramendiko gainaren ezaugarria —oso bista ederra eskaintzeaz gainerat, haatik— ur biltegi baten kokalekua izatea da. Atsedon pixka bat hartzeko eta ikuspegi zabalez gozatzeko unetxo bat harturik, hegoalderat behera goxo-goxo joango gara, ur biltegiara daraman lurberetik. Bide txiki batera iristean, ezker alderat joko dugu, eta horretan kilometro bat inguru eginik, bihurgune zorrotz batean, seko behera sartzen den bide are txikiago bat hartuko dugu. Horrek Etxegoinborda baserriara darama eta, zailentzen egonez gero, argindar habe batean emana den plaka batek ere baiez-tatzen digu hori. Etxalde horretara apur bat iritsi aurretik, harizti eder baten artean urrututako lur-bide bat hartuko dugu, ezkerre-rantz eta behera. Etxegoin edo Etxegoinborda baserriari bizkarraren ematen diogula, apurtxo bat gora egingo dugu, beste lurberetik batekin topo egin arte. Hor eskuin alderat hartuko dugu, Bakuitze izeneko

Militarrak mendiez baliatzaile

Txango honen azken zatian, Arradoi gainera igotzeko gisan, *Ingeniari militarren bidea* deritzen bidezidor bitxitik ibiliko gara. Antza, Arradoi gailurrera kanoiak edo bestelako heriotza tresnak eramateko xedean urratu zuten paretak batez hornituta dagoen bidexka hau. Militarren moldatutako horrelako beste bide bat gutxienez aurki daiteke Jara mendiarren magalean. Gaur egun, dena den, jarduera baketsuentzako erabilgai dira obra hauek, eta bada zertaz pozteko...

muino baten hegoaldeko maldan egindako bidezidor horretan. Une batez, bitxi badirudi ere, Done Jakue bideko seinale bat ere ikusiko dugu.

IHIZGORRI BIZKARRAREN GORA. Laster, bide txiki batekin topo egin eta ezker alderat hartuta jarraituko dugu horren gainetik. Kilometro bat eskas egin ondoren, bihurgune pare batean dagoen lepo txiki batean —mapan 379 metroan emana da—, bide hau utzi eta ote malda baten gora joko dugu. Ihizgorri edo Nabahandi izenak dituen bizkar horren harira iritsirik, bidezidorrean hego-mendebaldera ibiliko gara, une batez, haatik, xenda hau hegoalderat bihurtuko zaigularik. Une batez ere, kolore askotako —laranja, hori, berde...— ibilbide seinalatuta batean egongo gara. Hegoaldean parez pare eta baso batez inguratuta daukagun mendia Arradoi dugu, eta haren gailurrera zapatzera goaz. Lehenik, haatik, Jatsu aldetik datorren bide txiki bat topatzen, eskuin alderat hartuko dugu —*retour Ispoure* (Izpura bueltatzea, alegia) pankarta batek seinalatzen digun legez.

Amalera arte tinda horiz seinalatuta izango dugun ibilbidean apur bat gora egin beharko dugu, Frantziako armadaren obra izan omen den bidezidor harresidun bitxi batean. Horrek, itzuli-mitzulika, Arradoi gainera (660 m) lagunduko gaitu. Gailur horrek, baina, ez gaitu ikuspegi handiarekin oparitu, zuhaitzez inguratuta denez. Ibilbide seinalatuari eutsita betiere, hego-mendebaldera jaitsiko gara, atandarri edo harri-mapa batera. Hortik apur bat beherago, ibilbide seinaltatuak aukera eman digu Izpura Etxaineko paretatik —ezker alderat jota— edo Mitxadoi auzunetik —eskuinerat— iristeko. Izpura herri polita izango dugu helmuga.

Abiatu baino lehen...

SARTU

www.euskalmet.net

Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net

euskalmet
euskal meteorologia agenzia

aurreru doan herria
EUSKAL JAILURRIKUTIA GOBERNUA VASCO